



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko otsailaren 26a

26. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F S A I L A :

#### Galderak:

- Galdera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei Errenta Bermatuaren gaineko azterlan bat egiteko aginduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, gizarteratze edo larrialdi sozialeko prozesuak babesteko aparteko laguntzak eta laguntzak aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Corellan, Aita Pasiotarren antzinako egoitzan, CLECE enpresak zahar-etxe bat eraikitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, landa ingurunean zahartzea dela-eta arretarako eredu pilotu bat diseinatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nafarroako lurraldean “txerri-basurdea” deitutakoak duen egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, SINAI-Nafarroako I+G+b Sistemari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren tutoretzapean dauden adingabe atzerritarrak nahastuta ageri izan diren liskarrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Tuterako Herritarrentzako Arreta Bulegoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatzeko Fundazioaren tutoretzapean dauden pertsonetikiko legezko betebeharrak ez betetzea ekiditeko jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Lantegi Eskolak Programak eta Enplegu Programak garatze aldera Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egindako deialdiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, “Tracasa Instrumental sozietateari eginiko enkargua, kobrantzen, jakinarazpenen eta lan osagarrien kudeaketa zerbitzuak egin ditzan” 1550003 17830 2272 932100 (E) aurrekontu-partidari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Berrikuntzaren Hiria etorbidean sartzeko biribilguneko trafiko-gorabeherei, istripuei edo harrapatzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Suteak Itzaltzeko Zerbitzuetarako Hitzarmenen Kudeatzailearen arteko lankidetzat-hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

- Galdera, Nafarroako enpresek azken 15 urteetan aitortutako enpresa-galeren guztizko kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, atletismoa pista estalian egin eta horretan entrenatzea ahalbidetuko duten azpiegiturak eraikitze aukera ezberdinen kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fisioterapeuta izateko lan-eskaintza publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, aberaste bidegabearen egoeran dagoen “San Juan de Dios Ospitalearekin itundutako zerbitzuak” izeneko kontratuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko Pediatriako ZIUari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Nafarroako Foruzaingoko kideen lanaldien, ordutegien eta ordainsarien Erregelamendua onesten duen urtarrilaren 10eko 1/2005 Foru Dekretuaren indarraldiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Nafarroan despopulazioaren ondorioak leuntzeko jarduketei eta horien kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren eta korporazioa osatzen duten 16 sozietateen egituren zerbitzuko langileei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei Errenta Bermatuaren gaineko azterlan bat egiteko aginduari buruzkoa.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei Errenta Bermatuaren gaineko azterlan bat egiteko aginduari buruzkoa. Galdera 2019ko azaroaren 28ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko abenduaren 23an  
Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak

galdera egin du errenta bermatuaren gaineko azterlan bat egiteko oinarrizko gizarte zerbitzuei emandako aginduari buruz (10-19/PES-00168). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Oinarrizko gizarte zerbitzuei ez zaie agindurik eman errenta bermatuari buruzko azterketarik egiteko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko abenduaren 23an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

**Galdera, gizarteratze edo larrialdi sozialeko prozesuak babesteko aparteko laguntzak eta laguntzak aldatzeari buruzkoa.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, gizarteratze edo larrialdi sozialeko prozesuak babesteko aparteko laguntzak eta laguntzak aldatzeari buruzkoa. Galdera 2019ko azaroaren 28ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko abenduaren 20an  
Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du gizarteratze edo/eta larrialdi sozialeko prozesuak babesteko aparteko laguntzak aldatzeari buruz (10-19/PES-00169). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

“Gizarteratzeko laguntza bereziak” deitutakoei dagokienez, martxoaren 20ko 30/2019 Foru Dekretuaren onespeneraren bidez Gizarte Zerbitzuen Zorroa aldatu ondoren (NAO, 2019ko apiri-

laren 17koa), haietan aldaketa batzuk egin ziren, eta, beraz, gaur egun ez dago inolako aldaketarik aurreikusita.

Gizarteratzeko edo/eta gizarte-larrialdiko prozesuetan babesa emateko laguntzei dagokienez, esan behar da laguntza horiek oinarrizko gizarte-zerbitzuen kostu zenbatetsien multzoan sartuko direla; zehazki, oinarrizko eskualde bakoitzaren ezaugarri lotutako kostu espezifikoen barruan, oinarrizko gizarte-zerbitzuen oinarrizko programak eta finantzaketa-sistema arautzen dituen Foru Dekretu berriaren 16.1 artikuluan jasotzen den bezala; foru dekretu hori, izan ere, izapidetzearen azken fasean dago, eta aurreikusitakoaren arabera 2020ko martxoan onetsiko da.

Justifikazio ekonomiko eta teknikoan, oinarrizko gizarte zerbitzuen titularrak diren toki-entitateek justifikatu beharko dute kostu horietatik gutxienez % 20 bideratu izan direla gizarteratzeko edo gizarte-larrialdiko prozesuan babes jarduketak egitera (foru dekretu berriaren 23.3 artikulua).

Aipatzekoa da Nafarroako Gobernuak % 100ean finantzatutako zatian sartuta geratzen direla.

Azken batean, aldaketa horrekin ez da egonen norgehiagokako diru-laguntzen deialdirik; izan ere, diru-laguntzak Nafarroako oinarrizko gizarte-zerbitzu guztien finantzaketa arruntaren barruan geratuko dira, eta, horrela, bermatuko da foru erkidegoaren lurralde osoan laguntza mota hori behar duen edozein pertsonak edo familia-unitatek diru-laguntzak baldintza berdinetan lortu ahal izatea.

Horregatik, gizarte-larrialdietarako laguntzak edo/eta gizarteratze-prozesuak laguntzeko laguntzak finantzatzeko aurrekontu-lerroa ezabatu egiten da 2020an, eta haren zenbatekoa oinarrizko gizarte-zerbitzuak finantzatzeko aurrekontu-lerro orokorrean sartuko da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko abenduaren 20an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **Galdera, Corellan, Aita Pasiotarren antzinako egoitzan, CLECE enpresak zahar-etxe bat eraikitzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Corellan, Aita Pasiotarren antzinako egoitzan, CLECE enpresak zahar-etxe bat eraikitzeari buruzkoa. Galdera 2019ko abenduaren 12ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du Corellan, Aita Pasiotarren antzinako egoitzan, CLECE enpresak zahar-etxe bat eraikitzeari buruz (10-19/PES-00171). Hona Nafarroako

roako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

1. Eskubide Sozialetako Departamentuak ba al daki ea CLECE enpresak zahar-etxe bat eraiki nahi duen Corellan aita pasiotarrena zen egoitzan? Hala baldin bada, noiztik dauka horren berri?

2017an, Nafarroako Pertsonen Garapenerako eta Autonomiarako Agentziaren Obra eta Hornidura Atalean jaso zen Nuestra Señora del Villar ermita eraberritzeko proiektua, zeina Corellako Udalak aurkeztu baitzuen, obren baimena eman aurreko nahitaezko txostenaren eskaerarekin batera. Atal horretatik, abenduan, alderdi batzuk egokitzeko errekerimendua bidali zen. 2018ko abuztuaren 31n, Udalaren beste eskaera bat erregistratu zen exekuzio-proiektuarekin batera, hasierako diseinuari buruzko aldaketak jasotzen zituena, eta 2018ko azaroan eman zen azken txostena.

2. Nafarroako Gobernuak ba al daki zahar-etxea noizko eraikiko den?

Ez dugu proiektuaren martxari buruzko informazio gehiagorik.

3. Nafarroako Gobernuak ba al du inolako konpromiso formal edo ahozkorik obrak bukatzen direnean zahar-etxe horretan tokiak ituntzeko?

Nafarroako Gobernuak ez du inolako konpromisorik egoitza horretan plazak hitzartzeko. Gaur den egunean, eta proiektua amaitu arte, egoitza-

plazen hitzartzea araututa dago egoitza-plazak, eguneko egonaldiak eta autonomia sustatzeko zerbitzuak kudeatzeko indarrean den esparru-akordioan ezarritako baldintzekin.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **Galdera, landa ingurunean zahartzea dela-eta arretarako eredu pilotu bat diseinatzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, landa ingurunean zahartzea dela-eta arretarako eredu pilotu bat diseinatzeari buruzkoa. Galdera 2019ko abenduaren 12ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du (10-19/PES-00172) landa ingurunean zahartzea dela-eta arretarako eredu pilotu bat diseinatzeari buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Errealitate Sozialaren Behatokiak noizko bukatuko du landa ingurunean zahartzea dela-eta Allok Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin eta ADACENekin lankidetzan egin beharreko arretarako eredu pilotuaren diseinua?

Diseinua amaitzeko aurreikusitako data 2020ko otsailaren amaiera da.

Diseinu horrek kosturik izanen al du? Hala baldin bada, zenbatekoa izanen da eta zer partidarekin finantzatu da?

Horretarako aurrekontua 16.050 eurokoa da, eta "Errealitate sozialaren arloko azterlan eta hitzarmenak" izeneko 900008 92100 2276 231000 partidaren kargura egotziko da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 8an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **Galdera, Nafarroako lurraldean “txerri-basurdea” deitutakoak duen egoerari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako lurraldean “txerri-basurdea” deitutakoak duen egoerari buruzkoa. Galdera 2019ko abenduaren 12ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du Nafarroako lurraldean “txerri-basurdea” deitutakoak duen egoerari buruz (10-19/PES-00173). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Basurdearen eta etxeko txerriaren barietate vietnamdarraren arteko hibridazioa ingurumen-arazo garrantzitsua da basurdearen populazio basatiak kontserbatzeko.

Horregatik, martxoaren 29ko 216/2019 Errege Dekretuak espezie exotiko inbaditzaileen artean sartu zuen txerri vietnamdarra.

Nafarroan 2014-15 ehiza-denboraldian basatutako txerri vietnamdarren presentziari buruz hitz

egiten hasi zen, eta ehiztari-elkartek harrapaketa batzuk egin zituzten hurrengo kanpainan.

Hurrengo urteetan, txerri vietnamdarren noiz-behinkako agerpenak ere aipatu izan dira Nafarroako zenbait tokitan.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, 2017-18 denboralditik aurrera, alerta bat emana du ehiza larriko liburuetan, ehiztariak Administrazioari txerri vietnamdarraren presentzia jakinaraz diezaioten, alerik antzemanaz gero.

Azken 3 denboraldietan (abian dagoena barne), txerri vietnamdarra ikusi izanaren positibo bakarra dago, 2017ko irailean, Urraulgoitiko barrutian.

Ilundaingo Fauna Berreskuratzeko Zentroak, bere zereginen artean, dauka fauna exotiko inbaditzailea bildu eta desagerraraztea. 2013. urteaz geroztik 6 txerri vietnamdar jaso dira. Gehienak solte eta barreiu aurkitu ziren. Beste kasu batzuetan, animalia gatibuen entregetatik zetozen.

Galdera zehatzari erantzuteko, departamentu honek ez du animalia hibridoen presentziari buruzko informaziorik, baina, nolana ere, jakitun da balizko hibridazioak duen garrantzi biologikoz, eta etengabe alertan egoten da jakinarazitako edozein kasu desagerrarazteko.

Iruñean, 2019ko abenduaren 30ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

## Galdera, SINAI-Nafarroako I+G+b Sistemari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, SINAI-Nafarroako I+G+b Sistemari buruzkoa. Galdera 2019ko abenduaren 20ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, SINAI-Nafarroako I+G+b Sistema sortzeari buruz (10-19/PES-00174). Hona Nafarroako Gobernuo Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legeak, Zientziari eta Teknologiar buruzkoak, baimena ematen die Nafarroako Gobernuari eta I+G+b arloan eskudun den departamentuko burutza dauden langileei foru lege hori aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzaten. Horrela, bada, lege-agindua aplikatuz, une hartan eskumena zuen departamentuak, Garapen Ekonomikokoak, foru aginduaren proiektua egiteari ekin zion, SINAIren betearazpen-agenteak egiazatzeko prozedura arautzeko eta agente horiek erregistro publikoan inskribatzeko.

Foru Aginduaren proiektua herritarren parte-hartzearen izapiderako eskaini zen Nafarroako Gobernuaren gardentasunaren eta parte-hartzearen atarian, 2019ko apirilaren 24tik maiatzaren 24ra. Jasotako ekarpenak organo eskudunak baloratu zituen, eta egindako txostena Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu zen:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos/proyecto-orden-foral-por-que-se-regula-procedimiento-acreditacion-agentes>

Abuztuaren 14ko 95/2019 Foru Dekretuaren bidez, sortu berria zen Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak bere gain hartzen ditu Garapen Ekonomikorako Departamentuak ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren arloan betetzen zituen eginkizunak (salbu eta arlo horretan enpresei laguntza emate-

ari dagozkionak). Beraz, SINAIren erregistroa sortzea departamentu berriaren eskumena izanen da.

Departamentu berriaren barruan, SINAIren Erregistroaren Foru Agindua izapidetzeko eskumena Idazkaritza Nagusi Teknikoari dagokio. Organo horrek, burutza pertsona bat bazuen arren, egiturarik ez zuen harik eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen urriaren 30eko 272/2019 Foru Dekretua onetsi zen arte. Gaur egun ere, Idazkaritza Tekniko Nagusiko langileria osatu gabe dago.

Nafarroako Kontseiluari irizpena emateko bidali zaion espedienteak 20 dokumentu ditu, eta, besteak beste, honako hauek biltzen ditu: txosten juridikoa, genero-eraginari buruzko txostena, irisgarritasunari buruzko txostena, herritarren parte-hartzeari buruzko txostena eta araudiari, ekonomiari, justifikazioari eta antolaketari buruzko oroitidazkiak. Dokumentu horietako batzuk departamentu eskudunekoak ez diren beste entitate batzuek egin dituzte edo ontzat eman behar izan dituzte, eta horrek atzeratu egin du haien izapide-tzea.

Azpitarratu behar da ezen, nahiz eta SINAIren betearazpen-agenteak egiazatzeko foru-agindua sinatuta ez egon, horrek ez duela eraginik Gobernua izapidetzen ari den 2020ko laguntza-deialdian, zeinetan eragile horiek parte har baitzakete, orain arte egin duten bezala.

Ondorioz, aipatutako foru aginduaren onespenean izandako atzerapena egotz dakieke, alde batetik, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentu berriaren sorrerari —horren barruan dela oraindik osatu gabe dagoen Idazkaritza Tekniko Nagusia—, eta horrek departamentuaren ekintza-ahalmena mugatzen du, eta, bestetik, osatu behar izan den espedientearen konplexutasunari berari. Horrek guztiak atzerapena ekarri du aurreikusita zeuden epeetan. Hala ere, espedientearen kontsulta-egoeran dago jada Nafarroako Kontseiluan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 15ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa



## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren tutoretzapean dauden adingabe atzerritarrak nahastuta ageri izan diren liskarrei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren tutoretzapean dauden adingabe atzerritarrak nahastuta ageri izan diren liskarrei buruzkoa. Galdera 2019ko abenduaren 20ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren tutoretzapeko adingabe atzerritarrak nahastuta ageri izan diren liskarrei buruz (10-19/PES-00175). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Gertaeren berri izan ondoren, Familia eta Adingabeen Zuzendariordetzak bilera bat deitu zuen adingabe migratzaileen arretarako baliabideak kudeatzen dituzten entitate guztiekin, gatazka-egoera horiek sor ditzaketen kausetan sakontzeko eta egoera horiek murrizteko prebentzio-neurriak antolatzeko. Bilera hori joan den abenduaren 9an egin zen.

Era berean, abenduaren 13an, bilera bat egin zen Iruñeko Udaleko Udaltzaingoko eta Foruzaingoko arduradunekin, gertakariak aztertzeko eta istilu horiek prebenitzeko neurri egokiak ezartzeko eta, istiluak izatekotan, haiek direla-eta eraginkortasun handiagoz jokatzeko. Bilera horren ondorioz, polizia-kidegoekin lankidetzan jarduteko eta koordinatzeko esparrua indartu da, gaur egun Nafarroako Gobernuaren tutoretzapean dauden adingabe migratzaile guztien gainbegiratze eta laguntza hobea ekarriko duen informazio guztia partekatzeko. Lankidetzan hori zailtasun gehien

dituzten adingabeak gainbegiratzeko berariazko batzorde batean zehazten da, eta batzorde hori aldezka bilduko da.

Gogorarazi behar da, halaber, departamentu honek jarraipen-batzordeak eratu dituela adingabe migratzaileak hartzeko eta artatzeko baliabideak dauden herrietan. Batzorde horiek honako hauek osatzen dituzte: Familia Zuzendariordetzako langileak, PAGNAko kideak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako arduradunak, erreferentziako osasun-zentroetako arduradunak, udaleko langileak, erkidegoan lan egiten duten polizia-kidegoak, udalerrri horietan adingabeen zaintza eskuordetuta duten zentroetako arduradunak eta adingabeen harreraren eta integrazioaren arloan laguntzen duten gizarte-entitateak, bai eta udalerrietako herritarren ordezkariak ere. Batzorde horiek aldezka biltzen dira, baliabideak ireki ondoren, eta helburua da agente guztiak inplikatzeko adingabe migratzaileak gure gizartean behar bezala integratzeko, gatazka-egoerak hautemateko eta gatazka horiek konpontzeko beharrezkoak diren esku-hartzeak antolatzeko.

Azkenik, jakinarazi behar da gatazka horietan inplikaturako adingabeak identifikatu direla, eta horiekin guztiekin, babesgabetasun-egoeran dauden adingabeak direnez, ikuskapen eta arreta psikoterapeutiko handiagoa duten egoitza-baliabideetan sartzeko jarraibideak eman direla. Era berean, prebentzio-sustapeneko hezkuntza-ekintzak (trebetasun eta gaitasun sozialak) areagotzen ari dira, adingabe migratzaile horien kalteberatasuna dela eta. Ikertutako adingabeei buruzko eginbide judizialek ere aurrera jarraitzen dute.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 16an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca



## Galdera, Tuterako Herritarrentzako Arreta Bulegoari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Suárez Benito jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako Herritarrentzako Arreta Bulegoari buruzkoa. Galdera 2019ko abenduaren 20ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari José Suárez Benito jaunak PES-00176 idatzizko galdera egin du. Hona horri buruz informatu beharrekoa:

2019an, Tuterako Herritarrentzako Laguntza Bulegoak bete izan ditu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan herritarrei informazioa eta

arreta emateko zerbitzuak arautzen dituen irailaren 6ko 54/2010 Foru Dekretuan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean erregistro arloko laguntza bulegoei dagokienez esleitutako eginkizun guztiak; honako hauek, hain zuzen:

- Informazio administratiboa.
- Idazkiak, eskabideak eta dokumentuak erregistratzea.
- Iradokizunak eta kexak hartzea.
- Berehalako erantzuneko zerbitzu automatizatuak ematea, halakoak arian-arian ezartzen diren neurrian.
- Ziu-tagiri digitalak

Hurrengo taulan, 2019an Tuterako Herritarren Arretarako Bulegoan emandako laguntza-zerbitzuak zerrendatzen dira, hilabeteka.

2019an emandako laguntza-zerbitzuak, hilabeteka												
Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Guztira
2123	2388	2817	2673	3298	2694	2169	3079	4469	3874	3012	1695	34291

2020. urtean, Tuterako Herritarrentzako Laguntza Bulegoak 2019an emandako zerbitzu berberak eskaintzen jarraituko du, arreta berezia jarritz administrazio elektronikoarekin lotutako zerbitzu guztietan eta, hala badagokio, ekitaldian zehar Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiak eskatuta txerta daitezkeen beste zerbitzu berri guztietan.

Bi ekitaldietan, Sociedad Pública Navarra de Servicios y Tecnologías SAK (Nasertic) kudeatuko du herritarrei informazioa eta arreta emateko

zerbitzua. Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak 2019an eta Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiak 2020an.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 16an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko eta Funtzio Publikoko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

## **Galdera, Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatzeko Fundazioaren tutoretzapean dauden pertsonetikiko legezko betebeharrak ez betetzea ekiditeko jarduketei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatzeko Fundazioaren tutoretzapean dauden pertsonetikiko legezko betebeharrak ez betetzea ekiditeko jarduketei buruzkoa. Galdera 2019ko abenduaren 20ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatzeko Fundazioari buruz (10-19/PES-00177). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatzeko Fundazioak bere tutoretzapean dituen pertsonen kopuruak gora egin duenez, eta azken urteotan areagotu egin denez, Eskubide Sozialetako Departamentuak Fundazioko profesionalen kopurua handitu du, eta, bestetik, lana optimizatzea eta arretaren kalitatea hobetzea ahalbidetuko duten antolaketa-aldaketak egin ditu.

2015ean, Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatzeko Fundazioak 9 langile eta gerentea zituen. 2018ra arte, pixkanaka, profesionalen kopuruak gora egin du, eta, horrenbestez, lau profesional gehiago sartu dira taldean: administraria, gizarte-langilea, abokatua eta ekonomialaria. Fundazioaren gerentzian egindako aldaketekin, kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko eta esku-

hartze personalizatuagoa egiteko antolaketa-neurriak ere ezarri ziren. Neurri horien artean dago 2019ko erdialdean harrera-prozedura bat ezartzea, onartutako kasu berriei arreta emateko. Horretarako, gizarte-langile batek eta administrazio-langile batek (kontratazio berriak) osatutako lantalde espezifikoa bat sortu da, eta langile horiek jarduteko gaitasuna aldatu zaien pertsonekin harremanetan jarri dira, eta azaldu diete Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatzeko Fundazioa zer den, zer eginkizun duen, zer urrats emanen diren eta, azken batean, erabiltzailearen egoera ezagutzeko eta esku hartzeko plana egiteko beharrezkoak diren kudeaketak abian nola jarri behar diren.

Datorren urterako aurreikusita dago lantalde horrekin jarraitzea eta beste hiru profesional kontratatzea, ratioak tutoretzapeko pertsonen kopuru gero eta handiagoari egokituz. 2015ean 597 tutoretza-prozedura onartu ziren, eta 2018an 800 izan ziren (% 34ko igoera), egindako defentsa judizialak kontuan hartu gabe. Aurrekontu-kontratazioa ere handitzen joan da: 2015ean, 315.144 euroko aurrekontua izan zen; 2019ko hasierara arte, berriz, 534.000 eurokoa izan zen, eta urtearen erdialdean 40.000 euro gehiago jarri ziren harrera-taldea kontratatzeko beharrari erantzuteko. 2020rako aurrekontuen zirriborroan 720.000 euroko zenbatekoa aurreikusi da aurreikusitako proiektuak garatzeko, eta horrek esan nahi du % 25eko igoera egonen dela 2019ko bateratutakoarekin alderatuta.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 16an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **Galdera, Lantegi Eskolak Programak eta Enplegu Programak garatze aldera Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egindako deialdiei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lantegi Eskolak Programak eta Enplegu Programak garatze aldera Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egindako deialdiei buruzkoa. Galdera 2019ko abenduaren 20ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du (10-19/PES-00178) 2015. urtetik lantegi-eskoletarako eta enplegu lantegietarako onetsi diren deialdiei buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari gerentearen ekainaren 23ko 1325/2015 Ebazpenaren bidez, Gazteen Bermeko Enplegurako Lantegi-eskolak egiteko dirulaguntzen deialdia onetsi zen; lantegi-eskola horiek 25 urtetik beherako gazte langabeentzat dira edo 30 urtetik beherakoentzat, % 33ko desgaitasun aitortua edo handiagoa badute. Deialdi horretan 400.000 euroko gastua baimentzen zen.

Abenduaren 30ean honako hau onetsi zen: 3015/2016 Ebazpena, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, langabeei zuzendutako Lantegi-Eskolak eta Programa Integratuak izeneko prestakuntza eta enplegu programak 2017. eta 2018. urteetan gauzatzeko diru-laguntzen deialdia onesten duena, Nafarroako Foru Komunitateko lurralderako bakarrik. Deialdi horretan, 5.038.000 euroko gastua baimendu zen 2017. urterako (2.288.000 euro lantegi-eskoletarako eta 2.750.000 euro programa integratuetarako), eta 4.150.000 euro 2018. urterako (2.100.000 euro lantegi-eskoletarako eta 2.050.000 euro programa integratuetarako).

Abuztua 4an honako hau onetsi zen: 2413/2017 Ebazpena, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, langabeei zuzendutako Programa Integratuak izeneko prestakuntza eta enplegu programak 2017-2018 urteetan gauzatzeko diru-laguntzen deialdia onesten duena, Nafarroako Foru Komunitateko lurralderako bakarrik. Deialdi horretan 3.653.743 euroko gastua baimentzen zen (1.230.456 euro 2017rako eta 2.423.287 euro 2018rako).

Martxoaren 8an honako hau onetsi zen: 41E/2019 Ebazpena, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, langabeei zuzendutako Lantegi Eskola programak eta Prestakuntza eta Enplegu Programa Integratuak 2019an, 2020an eta 2021ean gauzatzeko dirulaguntzen deialdia onesten duena, Nafarroako Foru Komunitateko lurralderako bakarrik. Deialdi horretan, 5.000.000 euroko gastua baimendu zen 2019. urterako (2.500.000 euro lantegi-eskoletarako eta 2.500.000 euro programa integratuetarako), 5.000.000 euro 2020. urterako (2.500.000 euro lantegi-eskoletarako eta 2.500.000 euro programa integratuetarako) eta 3.000.000 euro 2021. urterako eskola-lantegietarako.

Urriaren 11n honako hau onetsi zen: 2600E/2019 Ebazpena, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, zeinaren bidez "Lehentasunez langabeei zuzendutako prestakuntza eta enplegu programa integratuak" dirulaguntzaren deialdia onesten baita. Deialdi horretan 2.384.175 euroko gastua baimendu zen.

Ez dago aurreikusita 2020an lantegi-eskolak finantzatzeko dirulaguntzen beste deialdirik argitaratzea, aurrekontu-partidan aurreikusitako kreditu guztia baimenduta baitago martxoaren 8ko 41E/2019 Ebazpenaren bidez onetsitako deialdiaren emakida onetsi ondoren.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 16an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **Galdera, “Tracasa Instrumental sozietateari eginiko enkargua, kobrantzen, jakinarazpenen eta lan osagarrien kudeaketa zerbitzuak egin ditzan” 1550003 17830 2272 932100 (E) aurrekontu-partidari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Tracasa Instrumental sozietateari eginiko enkargua, kobrantzen, jakinarazpenen eta lan osagarrien kudeaketa zerbitzuak egin ditzan” 1550003 17830 2272 932100 (E) aurrekontu-partidari buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 18ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du, Nafarroako Parlamentuan 2019ko urriaren 10ean erregistratu dena, 2240 zenbakiarekin (10-19/PES-00114). Hartan, hainbat galdera egiten ditu “TRACASA Instrumental sozietateari eginiko enkargua, kobrantzen, jakinarazpenen eta lan osagarrien kudeaketa zerbitzuak egin ditzan” izeneko 1550003 17830 2272 932100 (E) aurrekontu-partidari buruz. Partida horren 2019ko ekitaldirako zuzkidura handitu egin zen parlamentuko izapidean onartutako aurrekontu-zuzenketaren bidez, 572.769,00 euroko hasierako zuzkidurari 250.000,00 euro gehituta. Galderari erantzuteko, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ohore handiz eranstu dizu Nafarroako Foru Ogasuna erakunde autonomoak gaiari buruz egindako txostena.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 24an.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

Goian aipatutako dokumentuan hainbat galdera egiten dira “TRACASA Instrumental sozietateari eginiko enkargua, kobrantzen, jakinarazpenen eta lan osagarrien kudeaketa zerbitzuak egin ditzan” izeneko 1550003 17830 2272 932100 (E) aurrekontu-partidari buruz. Partida horren 2019ko

ekitaldirako zuzkidura handitu egin zen parlamentuko izapidean onartutako aurrekontu-zuzenketaren bidez, 572.769,00 euroko hasierako zuzkidurari 250.000,00 euro gehituta.

1. “2019ko abuztuaren 1ean, 328.396 euro exekutatu dira guztira. Hori guztia ikusirik, hona galderak:

Aurreikusita al dago ekitaldia itxi aitzin iristea “TRACASA Instrumental sozietateari eginiko enkargua, kobrantzen, jakinarazpenen eta lan osagarrien kudeaketa zerbitzuak egin ditzan” 1550003 17830 2272 932100 (E) partidaren aurrekontu-kreditu osoa betetzera?”

Data horretan, zergatik ez da kreditu-zenbateko handiagoa bete?

Aipatutako datan “TRACASA Instrumental sozietateari eginiko enkargua, kobrantzen, jakinarazpenen eta lan osagarrien kudeaketa zerbitzuak egin ditzan” izeneko 1550003 17830 2272 932100 (E) aurrekontu-partidak 572.763,14 euro ditu, 2019ko urtarriletik irailera arteko aldia dela-eta Tracasa Instrumental SLk jaulkitako hileroko fakturen ordainketaren ondorioz.

Ez da partidaren zuzkidura osoa betearazi 2019. urtearen amaieran. Ez betearaztearen arazoia da Tracasa Instrumental enpresari enkargua ez zabaltzea (851/2018 Ebazpena, abenduaren 12koa, Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzailarena) 250.000,00 euroko zenbatekoan; zenbateko hori, izan ere, Parlamentuan zuzenketa bidez jaso zen. Hala ere, 2019ko ekitaldiaren amaieran sinatutako enkargua osorik bete da, “TRACASA Instrumental sozietateari eginiko enkargua, kobrantzen, jakinarazpenen eta lan osagarrien kudeaketa zerbitzuak egin ditzan” izeneko 1550003 17830 2272 932100 (E) aurrekontu-partida horren hasierako zuzkiduraren araberak.

2019an Tracasa Instrumentalari zerbitzu gehigarriak ez enkargatzeko erabakia aurreko gobernuko Departamentuko eta Ogasuneko talde arduradunak hartu zuen, beherago azaltzen diren arrazoiengatik. Eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko eta Nafarroako Foru Ogasuneko egungo arduradunek bere egin dute bi arrazoiengatik:

- Lehenik eta behin, denbora- eta antolaketa-arrazoiengatik: talde berria erabat operatibo egiten hasi zenerako, ia ez zuen denborarik ematen horrelako lanak enkargatzeko eta Tracasa Instrumentalek dagokion langileak kontratatzeke, prestatzeko eta operatiboki lanean hasteko.

- Gainera, Departamentuko eta Nafarroako Foru Ogasuneko egungo arduradunek bat egiten dute aurreko gobernuak adierazitako argudioekin: iruzurraren aurka eraginkortasunez borrokatzeko helburuetako bat Ogasunari beharrezko langile kualifikatuak ematea da, eta horrek eskatzen du, Ogasunaren beraren barruan, behar adina teknikari, kudeatzaile eta abar izatea, horiexek baitira egiazki eskumenak dituztenak, eta horrek guztiak lehenetsunezkoagoa eta komenigarriagoa izan behar du, erakunde instrumental bati zeregin lagungarrietarako baliabide gehiago ematea baino. Eta, gaur egun, Ogasuneko baliabide kualifikatu horiek ez dira nahikoak, oraindik ez baita guztiz osatu 2016-2019 aldirako iruzurraren aurka borrokatzeko planean aurreikusitako teknikarien, kudeatzaileen eta zerga-agenteen lanpostuen gehikuntza; izan ere, legegintzaldi honetan zehar hori lortzea espero da.

Ogasuneko aurreko arduradunek Tracasa Instrumentalari zerbitzu gehigarriak ez enkargatzeko azaldutako arrazoiak Nafarroako Zerga Ogasunak 2018ko abenduan horri buruz egindako txosten batean azaldu ziren, zuzenketaren berri izatean. Hona hemen arrazoiak:

“TRACASA instrumental SL enpresari egindako enkarguan —hain zuzen, kobrantzak, jakinarazpenak eta lan osagarriak kudeatzeko zerbitzuak egiteko enkarguan—, Nafarroako Zerga Ogasunak 39.934,65 orduko lan-karga duten zerbitzuak enkargatzen ditu, 1.411.820,29 euroko kostuarekin. Ordu-kopuru horretatik, 32.284,28 ordu Diru-bilketa Zerbitzuari dagozkio, eta gainerako 7.650,37 orduak zergadunen arretarekin lotutako zerbitzuetara bideratuko dira. Aipatutako 32.284,28 ordu horietatik, 16.591,00 ordu Prozedura Berezien Atalari emandako zerbitzuei dagozkie, eta, beraz, 17830-155003-2272-932100 partidari lotuta daude.

Tracasa Instrumental SL enpresako langileen lanaldia urtean 1.592 ordukoa dela kontuan hartuta, honako hau da lehen adierazitako kopuruen bihurketa:

- Enkargua, guztira: 25,08
- Diru-bilketa Zerbitzua: 20,28
- Prozedura Berezien Atala: 10,42

Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoaren estatutu berriak onesten dituen abuztuaren 28ko 35/2015 Foru Dekretuaren 46. artikulua Prozedura Berezien Atalaren eginkizunak jasotzen ditu; prozedura horien artean honako hauek daude: zenbateko handiko zor-espeditenteen kudeaketa; Konkurtso-prozeduretan sartuta dauden zordunen kudeaketa; erantzukizuna deribatzeke espeditenteak izapidetzea; kreditu publikoa defendatzeko behar diren ekintza zibil eta penalak bultzatzea, eta kaudimengabeziako eta preskripzio-ko adierazpenak. Helburu horiek betetzeko, Atalak zazpi pertsona ditu, honela banatuta:

- Atalburu bat.
- Hiru ogasuneko teknikari.
- Ogasuneko kudeatzaile bat.
- Erdi mailako tituludun bat.
- Administrari laguntzaile bat.

Funtzionarioen lantaldeari gehitu behar zaio Tracasa Instrumentaleko langileen laguntza, arestian aipatutakoa (10,42 pertsona). Zuzenketak planteatzen du 2019. urterako 250.000,00 eurotan handitzea 17830-155003-2272- 932100 partidaren saldoa, eta horrek ekarriko luke beste bost pertsona kontratatzea, zuzenbideko edo/eta enpresen administrazioko eta zuzendaritzako lizentziadunak. Langileen ratioa 7 izanen litzateke (PPEE)/15.42 (ITRACASA).

Kontuen Ganberaren 2016/28 txostenak (preskribatutako zerga-zorak (2008tik 2015era), 2016-11-07koak, honela zioen hitzez hitz:

“V.1. Oharpenak, betetzeari buruzko iritzian eraginik ez dutenak.

Preskripzioen lagin batean egindako berrikuspenean eta Nafarroako Zerga Ogasunak erabilitako prozeduren azterketan, honako ondorio hauek ateratu ditugu:

1. Prozedura berezietako diru-bilketaren eta derrigorrezko diru-bilketaren kudeaketa konplexua eta luzea da. Lan horretarako beharrezkoak dira langileen dedikazio handia eta dokumentazio eta prozedura oso korapilatsuak.

Derrigorrezko Diru-bilketaren Atalean prozedura normalizatuago daude, eta Prozedura Berezien Atalean, berriz, haien bolumenarengatik eta egoeren izaerarengatik, zordunei jarraipen banakotuagoa egin behar zaie.

2. Prozedura Berezien Atalak bere langile kopurua handitu du aztertutako aldi hori, ordea, krisi ekonomikoaren garaia izan da, eta horrek nabarmen eragin dio zergen kudeaketari,



ugaritu egin baitira kaudimengabeziak, enpresen likidazioak eta hartzekodunen konkurtsoak. Gainera, aurre egin behar die zerga ingeniartzari eta iruzurrerako diseinatuta dauden hainbat sareri. “

Aipamen horretatik ondoriozta daiteke Prozedura Berezien Atalak garatutako zereginak indartu behar direla; txostenaren dataz geroztik, barne-sustapenaren bidez ogasuneko teknikari bat sartu da atalean; ITRACASAn, berriz, bost kudeatzaile sartu dira, 2017ko Aurrekontuei buruzko Foru Lege proiektuari egindako zuzenketa baten ondorioz.

Prozedura Berezien Atalak konplexutasun juridiko handiko espedienteak kudeatzen ditu, diru-bilketa kudeatzeko egoerak eta tresnak erabiltzea dakarrelako (hartzekodunen lehiaketak, kaudimengabeziak, erantzukizun-deribazioak, eta akzio zibil eta penalak bultzatzea); halakoek, izan ere, beraiekin dakarte Nafarroako Zerga Ogasuneko langileentzat nahitaez erreserbatuta egon behar duten aginte-eginkizunak betetzea. Tracasa Instrumental SLri agindutako zereginak lagungarriak dira ataleko langileentzat, eta atalean baloratu eta bideratu beharko diren espedienteak prestatzeko balio dute. Egoera hori uneoro behatu beharrekoa da, agintea egikaritzea dakarten eginkizunak stricto sensu administrazio publikoari erreserbatuta daudelako.

Hala jasotzen du berariaz Tracasa Instrumental SLri egindako enkarguaren baldintza teknikoaren eta ekonomikoaren agiriak, honako hau aipatzen baitu:

“Enkargu honek barne hartzen dituen lanen alderdi guztietan, Tracasa Instrumental SLren eginkizuna espedienteak prestatzea baino ez da, administrazio-unitate arduradunetako buruek emandako gidalerroei jarraituz, eta horiek emanen dituzte kasuko administrazio-egintzak”.

Nafarroako Zerga Ogasunaren barneko txosten juridikoetan zalantzan jarri da enkargua administrazio publikoari agintea erabiltzeko erreserbaren araberakoa den; hartara, 2018an indarrean zegoen enkarguarekin batera aurkeztutako txosten juridikoan honako hau aipatzen zen:

“Funtsean, ikuspuntu juridikotik enkarguaren gaiari egin dakioken eragozpenik garrantzitsuena tributu-administrazioaren administrazio-ahalak erasateko arriskua da; izan ere ahal horiek, bidegabeki, erakunde instrumentalaren esku utziko liriteke, enpresa horretako langileek bete ditzaten. Esan beharra dago besteren esku uzte hori, gainera, akzio publikoko sektore batean gertatzen dela, bilketa-prozeduretan, non bereziki zaindu behar baita ordaintzera behartuta daudenen ber-

meak betetzen direla, prozedura mota horren izaera hertsatzailea kontuan hartuta. Prozedura horien mugarriak, hasten direnetik amaitzen diren arte txostenekin eta ebazpen-proposamenekin —hau da, izapidetze eta instrukzio administratiboa— Tracasa Instrumentaleko langileek egiten eta gauzatzen badituzte (organikoki eta funtzionalki Zerga Ogasunean integraturik ez dauden pertsonak), nekez arrazoituko da kasu horietan erakunde instrumentalak ez duela benetan parte hartzen bere langileen bidez zerga-administrazioaren berezko ahalmenetan; bada, ordenamendu juridikoak debekatu egiten du jokabide hori (Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/206 Foru Legearen 8.1 artikulua; Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren entitate instrumentalezko enkarguak arautzen dituen otsailaren 19ko 23/2014 Foru Dekretuaren 3.2 artikulua; urriaren 5eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 9.2 artikulua).

Azken batean, irizpide hori, jada aurreko txostenean azaldutakoa —egoki da hartara jotzea— beste behin berresten da: bertan sartu ezin diren eginkizunak jasotzen dira enkargu horretan, zeren eta erakunde autonomoko kasuan kasuko unitateetan integratutako langileek zuzenean gauzatu behar dituzten eta esleituta dituzten jarduketak direlako. Eta, horrekin batera, beharrezkoa da zeregin horiek pixkanaka itzultzea administrazio-unitate horietan, eta enkargu hori administrazio-ahalmenei eragiten ez dieten zereginetara eta lanetara mugatzea”.

Argi geratu behar da Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendaritza ez dagoela ados planteamendu horrekin, enkargua gauzatzean erreserba hori errespetatu egiten baita; izan ere, TRACASA INSTRUMENTAL SLren jarduketak espedienteak izapidetzeko zeregin osagarrietara mugatzen dira, lan egiten duten espedienteen definizioan eta garapenean ekimenik izan gabe. Nolanahi ere, atal honek beretzat gordetzen du, konplexutasun juridiko berezia dutelako, bertako langileen arreta fase guztietan behar duten espedienteen kudeaketa osoa. Hala ere, Tracasa Instrumental SLren plantillaren etengabeko hazkundeak mezu nahasgarri bat bidaltzen du, aipatutako txostenean adierazitakoaren ildotik interpreta daitekeena.

Ataleko plantillaren zedarritzeek muga bat ezartzen diote Tracasa Instrumental SLn izapidetu daitezkeen jarduketaren bolumenari, aginte-egikaritzaren erreserbari dagokionez; beraz, proposatutako plantilla-gehikuntzak ez ditu indartzen iruzurraren aurkako jarduketak diru-bilketaren arloan,

zeinak balio baitezake balio erantsi handiagoko jarduketak areagotzeko. Aurrekontu-ahaleginak Prozedura Berezien Ataleko eta, oro har, Zerga Bilketako Zerbitzuko plantilla handitzera bideratu behar dira; izan ere, diru-bilketaren kudeaketa ezin da konpartimentu estanko gisa ulertu, baizik eta modu bateratuan garatu behar diren izapideen segida gisa”.

Nafarroako Foru Ogasunaren eta, bereziki, Diru-bilketa Zerbitzuaren borondate argia da zerga-betebeharren diru-bilketaren esparruan gertatzen diren iruzurrezko jarduketei aurre egitea, Prozedura Berezien Atalari bete ditzan agintzen zaizkion tresnak indartuz; esate baterako, erantzukizuna deribatzea, akzio penalak baliatzea eta konkurtso-prozedurak aztertzea. Jarduketa horien izaera publikoa eztaba daezina da, diru-bilketaren eremuan aginte-funtzioak praktikan aplikatzea baitira, eta, horiek diren aldetik, eskuordetu ezin dira. Horri dagokionez, Kontuen Ganberak egindako gogoetetara eta jada errepikatutako txosten juridikoetara jotzen dugu.

Zergen bilketaren arloko iruzurrezko jarduketei aurre egiten dieten jarduketek hobekuntzak jarraian azaltzen diren hainbat jarduketa-bide jarraitu behar ditu, eta horien artean Nafarroako Foru Ogasunak ez du aurreikusten arlo horretan zerbitzua ematen dion Tracasa Instrumental SLren plantilla handitzea.

- Erantzukizuna deribatzekeo jardueretarako kontabilitate-euskarri egokia ematen duten tresna informatikoak garatzea. Alde horretatik, Nafarroako Foru Ogasuna asmo handiko proiektu batean sartuta dago, eta proiektu horri esker, egungo murrizketak gainditu ahal izanen dira, eta erantzuleen aurrean deribatze-espeditenteen ondoriozko zorrak kudeatu ahal izanen dira, zordun nagusiarekin berdintasunean. Aurreikuspenen arabera, lehen entregatzeakoak 2020an egonen dira mar-txan.

- Erantzukizun-deribazioen eta, hala badagokio, ekintza penalen egitezko aurrekontuak osatzen dituzten iruzurrezko jarduketak detektatzeko tresna informatikoak garatzea. Ildo horretan, eta Tracasa Instrumental SLk IKT tresnen sustatzaile gisa duen funtsezko parte-hartzearekin, Nafarroako Foru Ogasunaren datu-baseetan jasotako informazioa automatikoki aztertzekeo proiektu bat abiarazi da, iruzurrezko jokabide konplexuen patroiak bilatzeko. Horren lehen emaitzak 2019an zehar erabiltzea espero da.

- Nafarroako Foru Ogasunaren Estatutuen aldaketa berrian bultzaturiko eginkizunak Diru-bilketa Zerbitzuko unitateen artean berrantolatzea,

bakoitzak bereak dituen eginkizunetan espezializazio handiagoa bilatzen baita, bai eta Prozedura Berezien Unitateko langileak liberatzea ere, idazki honetan aipatzen ari garen espeditenteen kudeaketan kontzentratzeko.

- Ogasuneko langile kualifikatuak, teknikariak eta kudeatzaileak kontratatzea Diru-bilketa Zerbitzuan, espero diren zereginen gehikuntza bere gain hartzeko, lehen zehaztutako tresna informatikoak pixkanaka ezarriz; halaber, agintea erabiltzea eskatzen duten espeditenteen kudeaketa erabat bere gain hartzea ere, eta, horretarako, osagarriak izateagatik Tracasa Instrumental SLn egiten diren espeditenteen zatiak barneratu eta Diru-bilketa Zerbitzuan bertan egitea. Espeditenteen kudeaketaren zati hori barneratzeak aukera emanen du Zerbitzuko arduradunek espeditenteak hobeto kontrolatzeko, konplexutasun handiko gaietan irizpide juridikoak uniformeki aplikatzea bermatuz.

Ildo beretik, duela gutxi Diru-bilketa Zerbitzuan ogasuneko kudeatzaile bat hartzeko izapideak egin dira, Nafarroako Foru Ogasuneko plantilla berriki handitu delako, eta Ogasun honen lehentasuneko helburua da lanpostu kualifikatu gehiago sortzea, batez ere Ogasuneko teknikarienak eta kudeatzaileenak, iruzurraren aurkako borrokara bideratzeko hainbat arlotatik, hala nola Ikuskaritza eta Diru-bilketatik. Pixkanakako igoera hori aurreikusita zegoen Gobernuak aurreko legealdian onartutako 2016-2019 aldirako iruzurraren aurka borrokatzekeo planean, eta haren beharra behin eta berriz adierazi du iruzurraren aurka borrokatzekeo batzordeak, bai eta NUPek ezkutuko ekonomiari eta iruzur fiskalari buruz egin berri duen azterlanean ere, eta Gobernu honen helburu bat da legegintzaldi honetarako, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak behin baino gehiagotan publikoki adierazi duen bezala.

2. Ba al daki Departamentuak partida horretako kreditu-handitzeak, 250.000 eurokoak, helburu zuela TRACASA Instrumentalek bost teknikari kontratatzea zerga-iruzurra saihesteko?

TRACASA Instrumentalek 2019an kontratazio hori egin al du? Ezezkoan, zein da kontratazio hori ez egiteko izan den arrazoia?

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak badaki partida handitzearen xedea zela Tracasa Instrumental SLn teknikariak kontratatzea, zerga iruzurrari aurre egiteko.

Zilegi bekigu esatea galderaren hitzez hitzeko ahoskerak berak nolabaiteko nahaste terminologikoa islatzen duela.



• Teknikarien kontratazioa du aipagai. Nafarroako Foru Ogasunaren eremuan, "teknikari" kategoria Ogasuneko teknikarientzat gordetzen da, zeina Nafarroako Foru Ogasuneko "A" mailako berariazko funtzionarioen kidegoa baita. Horiek oposizio bat gainditu beharko dute, 185 gairi buruzko hainbat ariketa teorikorekin, kontabilitateko eta matematika finantzarioko azterketa batekin eta irizpen juridiko batekin. Ogasuneko kudeatzaileei ere aplika dakieke, 'B' mailako Nafarroako Zerga Ogasuneko berariazko funtzionarioen kidegoari, hain zuzen. Horiek oposizio bat gainditu beharko dute, hainbat ariketa teorikorekin, bai eta kontabilitateko azterketa bat ere.

Adierazten da langile horien eginkizuna izanen dela zerga-iruzurraren aurkako borrokan jardutea. Dagoeneko adierazi da iruzurraren aurkako borrokatzat hartzen diren jarduketek aginte-funtzioak betetzea dakartela, eta, beraz, legez Nafarroako Foru Ogasuneko funtzionarioentzat gordeta daudela.

Tracasa Instrumental SLri egindako enkarguaren alderdi guztietan, haren eginkizuna espedienteak prestatzea da, administrazio-unitate ardurdunetako buruek emandako gidalerroei jarraituz; administrazio-unitate horiek dagozkien administrazio-egintzak emanen dituzte.

Aurreko batzuetan, eta Diru-bilketa Zerbitzuari esleitutako partiden hasierako zuzkidurari egindako beste zuzenketa baten ondorioz (garai hartan "iruzurraren aurkako borrokan espezializatutako teknikariak" aipatzen ziren), Tracasa Instrumental SLri enkargua luzatu zitzaion, eta hark langileak kontratatu zituen, iruzurraren aurkako borrokan espezializatuta egotearen betekizuna bete gabe. Ez dago profil hori administrazio publikotik kanpo;

izan ere, zergen bilketaren esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko jarduerak Zerga Administrazioarentzat gordetako ahalmen publikoak erabiltzea dakarte.

Hori guztia ikusita, 2019an ez da langile berrik kontratatu Tracasa Instrumentalean, zuzenketak gaitutako baliabide ekonomikoen babesean, eta ez dago aurreikusita kontrataziorik egitea.

3. Ez al du uste Gobernuak bost teknikari horiek ez kontratatzea zerga-iruzurraren aurkako borrokan atzera egitea dela?

Erantzunak ezezkoa izan behar du nahitaez: Tracasa Instrumental SLn langile berriak kontratatzeak ez du iruzurraren aurkako borroka hobetzen laguntzen, kontratazioaren unean zerga-kudeaketa ezagutzen ez duten baliabide materialen metaketa hutsetik harago.

Aurrekontu-ahaleginak zentratu beharko dira garapen informatikoetan eta Nafarroako Foru Ogasuneko funtzionarioentzako, Ogasuneko teknikarientzako eta Ogasuneko kudeatzaileen-entzako lanpostuen sorreran, horiek bai zerga kudeaketan espezializatuak baitira. Bi faktore horien konbinazioari esker, iruzurraren aurka borrokatzeko jarduketan eremua zabaldu ahal izanen da, eta erakunde instrumentalak tributuen bilketan izan duen parte-hartzeari buruz adierazi diren zalantzak argitu ahal izanen dira, Nafarroako Foru Ogasunari balio handiagoa dakarkioten jarduketak, osagarriak izan arren, barneratuz.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 24an

Nafarroako Foru Ogasuneko zuzendari kudeatzaile Óscar Martínez de Bujanda Esténozek elektronikoki sinatutako dokumentua

## **Galdera, Berrikuntzaren Hiria etorbidean sartzeko biribilguneko trafikogorabeherei, istripuei edo harrapatzeei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Elena Llorente Trujillo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Berrikuntzaren Hiria etorbidean sartzeko biribilguneko trafikogorabeherei, istripuei edo harrapatzeei buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 31ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Elena Llorente Trujillo andreak galdera egin du, idatziz erantzuteko, Berrikuntzaren Hiria etorbidean sartzeko biribilgunean, hain zuzen ere Tracasaren eraikinaren parean, gertatzen diren trafikogorabeherei, istripuei edo harrapatzeei buruz (10-19/ PES-00144). Hari erantzuteko, Nafarroako Gobernuak Lurralde

Kohesiorako kontseilariak informatu behar dio ezen, galderan aipatzen den biribilgunea, Berrikuntzaren Hiria etorbidearen sarreran dagoena, PA-30eta eta NA-2310 errepideak lotzeko egiturari dagokiola.

Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren ARENA II datu-basean erregistratutako azken bi urteetako (2018 eta 2019) istripuei buruzko datuen arabera, 6 istripu erregistratu dira eskatutako puntutik hurbil.

Bigarren puntuari dagokionez, Lurralde Kohesiorako Departamentuak ez du aurreikusi Foru Komunitateko Errepide Sarearen Kontserbazio Integralari dagozkionak ez den beste jarduerarik aurrera eramatea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Suteak Itzaltzeko Zerbitzuetarako Hitzarmenen Kudeatzailearen arteko lankidetzahitzarmenari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren eta Suteak Itzaltzeko Zerbitzuetarako Hitzarmenen Kudeatzailearen arteko lankidetzahitzarmenari buruzkoa. Galdera 2019ko azaroaren 28ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatzizko galdera egin du Nafarroako Gobernuaren eta Suteak Itzaltzeko Zerbitzuetarako Hitzarmenen Kudeatzailearen arteko lankidetzahitzarmenari buruz (PES-00170). Hona hemen horri buruzko informazioa:

1.- 2018an zenbat diru heldu zen Nafarroako Gobernuaren eta Suteak Itzaltzeko Zerbitzuetarako Hitzarmenen Kudeatzailearen arteko lankidetzahitzarmenetik?

2.800.812,46 euro heldu ziren.

2.- Nafarroako Gobernuak zenbat diru jaso du azken zortzi urteotan hitzarmen hori dela-eta? Urteko diru-kopuru horretatik zenbat bideratu da Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzurako edo Nafarroako Larrialdietako Agentzia zeritzonerako?

2012tik hasi eta gaur artek zenbatekoa 20.659.152,40 euro da.

Ondoren, kreditu-sorkuntzari buruzko xehetasunak ematen ditugu, eskatutako datatik aurrera:

2012: 412.934,04 euro

2013: 673.723 euro

2014: 366.990 euro

2015: 792.000 euro

2016: 745.403 euro

2017: 281.000 euro

2018: 309.847 euro

2019: 400.812 euro

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 24an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

## Galdera, Nafarroako enpresek azken 15 urteetan aitortutako enpresa-galderen guztizko kopuruari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Luisa De Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako enpresek azken 15 urteetan aitortutako enpresa-galderen guztizko kopuruari buruzkoa. Galdera 2020ko urtarrilaren 10eko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko eledun Marisa de Simón Caballero andreak idatziz erantzuteko galdera bat egin du —2019ko abenduaren 17an erregistratua, 179. sarrera-zenbakiarekin, 10-19/PES-00179— sozietateen gaineko zergan azken 15 eta 5 urteetan konpentsatu diren enpresa-galderen kontaketa buruz. Honako hau da Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz informatu beharrekoa:

1. Lehenik eta behin, adierazi behar da galdera honetan eskatutako informazioa Sozietateen gaineko Zergaren Estatistiketan sartzen dela, eta estatistika horiek, 2009ko zergaldiaz geroztik,

Nafarroako Foru Ogasunaren webgunean argitaratu daudela.

[http://www.navarra.es/home\\_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Economia+y+Hacienda/Organigrama/Estructura+Organica/Hacienda/Impuestossociedades.htm](http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Economia+y+Hacienda/Organigrama/Estructura+Organica/Hacienda/Impuestossociedades.htm)

2. Galdera, hein batean, 2009a baino lehenagoko zergaldiei buruzkoa da (argitaratutako estatistiken lehen erreferentzia-aldia), eta, jarraian, informazioa aurkezten da, gaur egungo aitopenen erregistroetan jasota dagoen moduan.

1. ERANSKINA: 2004tik 2018ra bitartean sortutako zerga-oinarri negatiboak. Aitorpen-kopurua eta haien zenbatekoak.

2. ERANSKINA: 2014tik 2018ra bitartean konpentsatutako zerga-oinarri negatiboak, aurreko ekitaldietatik datozenak. Aitorpen-kopurua eta haien zenbatekoak.

Ondorio horietarako, adierazi behar da estatistiketan argitaratutako datuak estatikoak direla, eta aldi desberdinen arteko alderaketa homogeneoa ahalbidetzen dutela. Oro har, “n” zergaldiko informazioa “n+2” urtean lortu eta argitaratzen da. (Adibidez, 2018ko zergaldiari buruz ari garela, oro har, 2019an aurkeztuko dira aitopenenak, eta, aurreikuspenen arabera, 2020ko apirilean argitaratuko dira estatistikak). Erantzun honetan aurkezten diren datuek egungo egoerari erantzuten

diote, urteetan zehar adierazpenetan (Administrazioak egindako berrikuspenak, aurkaratzeak, epez kanpoko aurkezpenak eta abar) gerta daitezkeen aldaketak kontuan hartuta. Beraz, baliteke aurreko aldietako datuak argitaratutako estatistiketako datuekiko desberdinak izatea, eta 2018ko zergaldiko datuak behin-behinean hartu behar dira kontuan.

Bestalde, gogoratu behar da, nolanahi ere, hitzarmen ekonomikoaren 18. artikulua arabera, Nafarroako araudia aplikatzen duten sozietateen aitortenak direla. Bai sozietateen gaineko zergaren bidez soili-soilik Foru Komunitateari zergak ordaintzen dizkietenean, bai Nafarroari eta Estatuari batera ordaintzen dizkietenean.

3. 1. eta 2. eranskinetako xehetasun-datuetan oinarrituta, zenbateko hauek lortzen dira guztira:

**1. ERANSKINA: SORTUTAKO zerga-oinarri negatiboak**  
NAFARROA, GUZTIRA (S-90 eta 220 ereduak)

	Aitorpen kopurua	Kopuru erlatiboaren zenbatekoa
2004	5.240	- 345.068.558,55
2005	5.489	- 387.892.188,71
2006	5.589	- 349.156.353,77
2007	6.327	- 569.024.377,39
2008	7.380	- 1.029.568.855,78
2009	8.443	- 1.176.529.216,17
2010	8.098	- 1.024.091.084,70
2011	8.408	- 1.084.542.795,67
2012	8.884	- 1.374.827.159,39
2013	8.453	- 963.361.567,13
2014	7.635	- 806.773.672,97
2015	6.997	- 604.078.266,17
2016	6.576	- 621.240.202,98
2017	6.355	- 507.913.013,80
2018	5.984	- 423.882.170,70

**-11.267.949.483,88**

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 28an.

Ekonomia eta Ogasuneko Kontseilaria: Elma Saiz Delgado

• Nafarroako enpresek azken 15 urteetan aitortutako galera guztien batura: 11.267.949.483,88 euro.

• Nafarroako enpresek azken 5 ekitaldi ekonomikoetan sozietateen gaineko zergan izandako galerengatik konpentsazioen guztizko batura: 1.143.481.610,45 euro.

**4. ERANSKINAK:**

Magnitude bakoitzerako (urteko zerga-oinarri negatiboak edo aurreko ekitaldietako zerga-oinarri negatibo konpentsatuak), zenbatekoa aipatutako magnitudean kontsignatu duten aitorten kopurua aurkezten da. Zenbatekoak, kasua bada, Nafarroari dagokion tributazio-ehunekoarekin biderkatuta aurkezten dira.

**2. ERANSKINA: KONPENTSATUTAKO zerga-oinarri negatiboak**  
NAFARROA, GUZTIRA (S-90 eta 220 ereduak)

	Aitorpen kopurua	Kopuru erlatiboaren zenbatekoa
2014	4.007	222.180.475,10
2015	4.454	216.967.126,84
2016	4.508	245.838.796,75
2017	4.450	244.320.088,07
2018	4.257	214.175.123,69

**1.143.481.610,45**

## **Galdera, atletismoa pista estalian egin eta horretan entrenatzea ahalbidetuko duten azpiegiturak eraikitzeo aukera ezberdinen kostuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, atletismoa pista estalian egin eta horretan entrenatzea ahalbidetuko duten azpiegiturak eraikitzeo aukera ezberdinen kostuari buruzkoa. Galdera 2020ko urtarrilaren 10eko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du, jakin nahi baitu “Kultura Departamentuan eta Nafarroako Kirol Institutuan zer estimazio darabilten atletismoa pista estalian egin eta horretan entrenatzea ahalbidetuko duten azpiegiturak eraikitzeo aukera ezberdinen kostuari buruz” (10-19/PES-00180). Hona hemen Kultura eta Kiroleko kontseilariak horri buruz informatu beharrekoa:

Nafarroako Kirolaren Institutuak estimazio hauek ditu atletismoa pista estalian egiteko azpiegiturak eraikitzeoari buruz:

#### 1. Atletismorako modulu bat eraikitzea

Nafarroako Kirolaren Institutuak Nasuvinsa enpresari enkargatu zion Larrabide estadioko harmailen egungo kokalekuan atletismoko modulu

bat eraikitzeo proiektu bat egiteko, eta hark arkitekto talde bati eskatu zion lan hori. Obraren kostua, guztira, 4.400.000 eurokoa da.

#### 2. Pista estali bat egitea

Atletismo-pista estalien eraikuntza berriak bilatu ziren, erreferentzia izan zitezkeenak. Salamancako pista estaliak 10 milioi euroko kostua izan zuen. Nafarroan antzeko eraikuntza bat egiteko azken prezioa txikiagoa izan liteke, proiektuak Salamancako azpiegiturako zuzkiduretako batzuk aintzat hartuko ez balitu. Era berean, zenbatespen horretan ez da inolako kopururik sartzen lursailak eskuratu behar badira ere.

#### 3. Tafallako belodromoa birmoldatzea

Tafallako Udalak, Nafarroako Kirolaren Institutuko langileekin egindako bileran, belodromoa atletismo-pista bihurtzeko kostuaren zenbatespenaren berri eman zuen: milioi bat euroko kostua izanen luke. Era berean, birmoldaketa lan hori gauzatuz gero, herriak beste kiroldegi bat beharko lukeela aipatu zuen, ukitutako kirolak hartzeko; haren prezioa lau milioi eurokoa izanen zela zenbatetsi zuen.

Hori jakinarazi ahal dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 30ean

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fisioterapeuta izateko lan-eskaintza publikoari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fisioterapeuta izateko lan-eskaintza publikoari buruzkoa. Galdera 2020ko urtarrilaren 10eko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-19- PES-00181 idatzizko galdera aurkeztu du, zeinaren bidez "informazioa eskatzen baitu fisioterapeuten lan-eskaintza publikoari buruz". Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariari horri buruz eman beharreko informazioa:

1.- Zer arrazoi dago lan-eskaintza publiko hori geldiarazteko?

Lehenik eta behin, adierazi behar da fisioterapeuten LEPa ez dagoela geldirik.

Iragan 2019ko ekainaren 17an, 116. NAO, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen maiatzaren 21eko 589E/2019 Ebazpena argitaratu zen. Ebazpen horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan fisioterapeuten 27 lanpostu huts merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzearen bitartez betetzeko deialdia onetsi zen.

Uztailaren 30eko 147. NAO, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Profesionalen zuzendariaren uztailaren 4ko 2754E/2019 Ebazpena argitaratu zen, eta deialdian onartutako izangaien behin betiko zerrenda onetsi zen.

Gaur egun, epaimahaiak hautagaien merezimenduak baloratu behar ditu.

Azterketa 2020ko apirilera egiteko aurreikuspena aldatzeari dagokionez, egiten ari den

lekualdatze-lehiaketan 2019ko lan-eskaintza publikoan onetsitako lanpostu berriak sartu ahal izateko helburuarekin egin da; lanpostu horiek honako honetan argitaratu dira: 333/2019 Foru Dekretua, abenduaren 11koa, 2019ko lan publikoaren eskaintza partzial bat onesten duena osasun arloko langileentzat, bai Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzurako, bai Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen Osasun Departamentuko Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Instituturako. Lan eskaintza hori 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legean (2019rako luzatua) aurreikusitako ordezte-tasari dagokio (250. NAO, 2019ko abenduaren 23koa).

2.- Noizko aurreikusten da hasiera batean 2020ko apirilera programatutako azterketa hori?

Gaur egun ezin dugu datu hori eman, egungo lekualdatze-lehiaketaren garapenaren arabera izanen baita.

3.- Ba al dago Nafarroako Gobernuaren lan-eskaintza publikoko azterketa gehiago, zeinaren azterketaren data argitaratuta egonik geroratu edo geldiarazi baita? Zergatik? Nafarroako Gobernuak noizko aurreikusten du azterketa horietako bakoa?

Gai honi dagokionez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari dagozkion deialdiei buruz soilik erantzun dezakegu.

Azterketa-data aldatu egin da, egiteke zeuden hautaketa-prozesuetan 2019ko LEPe onetsi ziren lanpostuak sartu ahal izateko, lanpostu-kopurua handitze aldera.

2020. urtean zehar garatuko direla aurreikusten da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 23an

Osasuneko kontseilaria, Santos Induráin Orduña



## Galdera, aberaste bidegabearen egoeran dagoen “San Juan de Dios Ospitalearekin itundutako zerbitzuak” izeneko kontratuari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, aberaste bidegabearen egoeran dagoen “San Juan de Dios Ospitalearekin itundutako zerbitzuak” izeneko kontratuari buruzkoa. Galdera 2020ko urtarrilaren 10eko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikita-ko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-19/PES-0000182), informazioa nahi baitu aberaste bidegabearen egoeran dauden San Juan de Dios Ospitalearekiko itun eta kontratuei buruz. Haxe da Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Kontratua 2016ko abenduaren 31n amaitu zen; beraz, 2017ko urtarrilaren 1etik, ez 2018ko uztailaren 16tik, bidegabeko aberaste-egoeran gaude.

Taulan, bidegabeko aberastea hasi zenetik 2019ko abuztuaren 31ra arte ordaindutako metatuari buruzko informazio banakatua ematen da.

Departamento	Denominación del contrato	Fecha inicio del enriquecimiento injusto	Acumulado pagado por enriquecimiento injusto a 31 de agosto de 2019
SALUD	Concierto con el Hospital San Juan de Dios (Media estancia y paliativos)	01/01/2017	41.624.177,48 €
SALUD	Concierto con el Hospital San de Dios (Cirugía)	01/01/2017	18.442.420,33 €
SALUD	Concierto con el Hospital San de Dios (asistencia agudos)	01/01/2017	662.664,32 €
SALUD	<b>TOTAL HOSPITAL SAN JUAN DE DIOS</b>	<b>01/01/2017</b>	<b>60.729.262,13 €</b>

Osasuneko kontseilariak agerraldian adierazi zuen bezala, hitzarmen berezi bat ezartzeko lanean ari dira; beraz, ez da planteatzen itun sozialen legea aplikatzea, zeren eta lege horretan ez baita figura hori jasotzen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 22an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna



## Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko Pediatriako ZIUari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ospitaleguneko Pediatriako ZIUari buruzkoa. Galdera 2020ko urtarrilaren 17ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du, zeinaren bidez informazioa eskatzen baitu "Nafarroako Ospitaleguneko ZIU Pediatrikoari buruz" (10-20/PES-00001). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

#### 1. GALDERAREN ERANTZUNA

Prestazio eta Itunen Kudeaketarako Zerbitzuan dauden datuen arabera, honako hau jakinaz dezakegu:

Nafarroako Unibertsitatea Klinikako ZIU Pediatrikora honako gaixo hauek bideratu dira:

- 2019ko abenduan, 8 haur; 47.741,53 euroko kostua izan da.

- 2020ko urtarrilean 5 haur; 23.341,27 euroko kostua izan da.

Guztira, 13 haur bideratu dira NUKera, eta kostua 71.082,80 eurokoa izan da.

Zaragozako Miguel Servet Ospitaleko ZIU Pediatrikora honako gaixo hauek bideratu dira:

- 2019ko abenduan, haur bat, zeinaren bidaiagastuak 72 eurokoak izan baitira eta mantenu-gastuak, berriz, 48 eurokoak.

- 2020ko urtarrilean ez da haurrik bideratu.

Donostiako Ospitaleguneko ZIU Pediatrikora honako gaixo hauek bideratu dira:

- 2019ko abenduan 7 haur, eta 5 familiaren gastu-eskaerak jaso dira: 125 euro bidaiagastuetan, 468 euro mantenu-gastuetan eta 480 euro ostatu-gastuetan.

- 2020ko urtarrilean ez da haurrik bideratu.

Gurutzetako Ospitaleko ZIU Pediatrikora honako gaixo hauek bideratu dira:

- 2019ko abenduan, haur bat. Ez da garraio-edo mantenu-gastuetako eskaerarik jaso.

- 2020ko urtarrilean ez da haurrik bideratu.

Eskura ditugun datuen arabera, probintzia arteko lau anbulantzia fakturatu dira: bat Zaragozara bideratutako gaixoarena (473,55 euro), bi Donostiara bideratutako bi gaixoena (927,97 euro) eta beste bat Bilbora bideratutako gaixo batena (2.108,68 euro).

Adierazi behar da Osasun Sistema Nazionaleko zentro publikoen arteko fakturaziorik ez dagoela, eta, beraz, ezin ditugula eman gaixo horien osasun-arretaren kostuari buruzko datuak.

Nafarroako Gobernuarentzako kostua, guztira, 75.786 eurokoa izan da.

#### 2. GALDERAREN ERANTZUNA

Lehenengo ZIUParen kokapena 2016ko urrian aldatu zen.

Ez daukagu alde zureko plan funtzionalik.

Hain zuzen ere, azalera 61,4 metro koadrokoa izatetik 96,94 metro koadrokoa izatera pasatu zen, eta gaixoentzako bainugela lagundua jarri zen.

ZIU Pediatriko berriak 57.695 euroko inbertsioa eragin zuen guztira:

- Obrak: 42.701 euroko inbertsioa: biltegia egin, arotzeriarako eta neurria egindako altzariak erosi, iturgintzako, elektrizitateko, telefoniako eta webeko instalazioak jarri, eta igeltserotza-lanak egitea.

- Ekipamendu orokorra: 10.644 euroko inbertsioa: manparak, hozkailua, itxarongelako eserlekuak, telebistak, besaulki ergonomikoak eta seinaleztapena.

- Ekipamendu medikoa: 3.348 euroko inbertsioa: jaioberrien Neopuf suspertzailea eta Neopufeko oxigeno eta aire medizinaleko hartuneak.

(Agiriak erantsi dira): Prebentzio Medikuntzaren txostena eta 2016ko ekaineko aktak.

### 3. GALDERAREN ERANTZUNA

Lehenengo ZIUPetik gaur egunekora aldatzea 2016ko maiatzean erabaki zen, eta 2016ko urriaren 26an egin zen, 4 oheko edukierari eutsiz. Espazio libre batera lekualdatu zen, Helduen ZIUaren ondoan zegoen gunera; horrekin, azalera % 50 handitu zen.

Aldaketa hori egiteko arrazoiaren jatorria erabiltzaileen eta profesionalen hobekuntza-eskaerak izan ziren.

ZIU berriarekin osasun-langileek beren lana egiteko baldintzak hobetu nahi ziren: argi naturala, isolamendu akustikoa eta zerbitzuak (bainugela lagundua) edukiko zituzten, ordura arte halakorik ezin baitzen eskaini, leku faltagatik.

Kokapen-aldaketak ez zuen jarduketa konplexurik ekarri. Zirkulazio-zirkuituak berrikusi behar izan ziren Prebentzio Medikuntzako Zerbitzuarekin.

Abuztuan Unitateko burutzan eta urte bereko azaroan Pediatriako Zerbitzuko burutzan aldaketak egitearekin bat egin zen aldaketa; beraz, zuzenean lan egin zen Nafarroako Ospitaleguneko Zuzendaritzarekin.

Burutza-aldaketak bat etorri ziren, halaber, langile-plantillaren aldaketarekin, lanaldi-murrizketengatik eta hainbat arrazoi tarteko profesionalen artean izan diren lekualdatzeengatik. Halakoak konpontzen joan dira, besteak beste, kontratazioak handituz eta zerbitzu-eginkizunekin.

Deskribatutako hobekuntzak gorabehera, ezin izan zitzaizen erantzun une hartan profesionalek planteatutako hobekuntza-proposamen guztiei.

2017ko urtarrilean, ZIUPeko eta Nafarroako Ospitaleguneko Zuzendaritzaren lantalde bat

eratu zen, profesionalen proposamenak aztertze eta horiei erantzuteko.

Ez dago jasota une hartan unitate horretako lanpostuak gehitzea planteatu zenik.

2019ko apirilean, Pediatria Zerbitzuak Nafarroako Ospitaleguneko Zainketa Intentsibo Pediatrikoen Unitatea birdimentsionatzeko beharra planteatu zuen.

2019ko azaroan, Nafarroako Ospitaleguneko Gerentzia Pediatria Zerbitzuarekin lanean hasi zen Zainketa Intentsibo Pediatrikoen eta Neonatalen Unitatearen beharrak asetzeko. 2020ko urtarrilean, Zerbitzu honek Zainketa Intentsibo Pediatrikoen Unitatearen premien lehen proposamena egin zuen. Proposamen horren barruan daude Pediatriako Zainketa Ertainen Unitatearen proiektua eta ZIUP/Bitarteko Zainketen Plan Funtzionala, zeina gaur egun berrikusten ari baita Nafarroako Ospitaleguneko Zuzendaritzaren eta Pediatriako Zerbitzuko profesionalen artean, hura ezartzeko.

### 4. GALDERAREN ERANTZUNA

Une honetan, Nafarroako Ospitaleguneko Zuzendaritza premien txostena eta plan funtzionalaren proposamena berrikusten ari da. Ondorioak Osasun Departamentuari helaraziko zaizkio, dagozkion ondorioak izan ditzaten.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko otsailaren 5ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Indurain Orduña

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman).

## **Galdera, Nafarroako Foruzaingoko kideen lanaldien, ordutegien eta ordainsarien Erregelamendua onesten duen urtarrilaren 10eko 1/2005 Foru Dekretuaren indarraldiari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Foruzaingoko kideen lanaldien, ordutegien eta ordainsarien Erregelamendua onesten duen urtarrilaren 10eko 1/2005 Foru Dekretuaren indarraldiari buruzkoa. Galdera 2020ko urtarrilaren 17ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak PES10-20/00002 galdera aurkeztu du. Honako hau adierazi behar dugu hari erantzuteko:

Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legeak honako hau ezartzen du lehen xedapen iragankorrean: "Foru lege honetan aipatzen diren garapen erregelamenduak onetsi bitartean, egun indarra duten erregelamenduen aplikazioari eutsiko zaio. Zehazki, lanaldien, ordutegien eta ordainsarien araubide berria, foru lege honetan jasotako erregulaziotik heldu dena, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen da aplikatzea, eta bitartean indarrean jarraituko du Foruzaingoaren lanaldi eta ordainsarien Erregelamendua onesten duen irailaren 28ko 79/2016 Foru Dekretuak".

Aipatutako foru dekretu hori dela-eta administrazioarekiko lau auzi-errekurtso aurkeztu ziren Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko dagokion salan; hona hemen haien identifikazio-datuak:

Errekurtsogilea	Prozedura zk.
CSIF-SPF eta APF sindikatuak	509/2016
ELA sindikatua	526/2016
J.J.S.G eta beste 24	531/2016
A.A.J eta beste 21	540/2016

Lau prozedura horietako epaiak emanda, Nafarroako Gobernuak beste hainbeste kasazio errekurtso aurkeztu zituen, foru erkidegoko mailakoak eta estatuko mailakoak, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaien aurka.

Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak, berriz, 2019ko abenduaren 11ko probidentzia bidez, erabaki zuen "izapidetzeko ez onartzea Nafarroako Gobernuak Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2018ko ekainaren 12ko epaiaren aurka prestatutako kasazio-errekurtsoa; epai hori 526/2016 prozedura arruntean emana zen". Probidentzia horrek berak jarduketak instantziako auzitegiari itzultzeko agintzen zuen, planteatutako kasazio-errekurtso autonomikoa onartzeari buruzko ebazpena eman zezan.

Kasazio autonomikoaren (4) eta Estatuko gainerako kasazio-errekurtsoen (3) ebazpena ebazteke geratu denez, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari zerbitzu juridikoek ez dutenez erabaki irmorik hartu, une honetan, erabaki hori zorrotz betearazteko aukera ematen duten legezko aukerak aztertzen ari dira.

Nolanahi ere, arlo horretan egiten den aurrerapen orok errespetatu egin beharko ditu Nafarroako Foru Administrazioari langile guztien lan baldintzei buruz indarrean dauden eta Funtzio Publikoko mahai orokorrean adostuta dauden konpromiso orokorrak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaritzako, Berdintasuneko eta Funtzio Publikoko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

## **Galdera, Nafarroan despopulazioaren ondorioak leuntzeko jarduketei eta horien kostuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Bonilla Zafra jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan despopulazioaren ondorioak leuntzeko jarduketei eta horien kostuari buruzkoa. Galdera 2020ko urtarrilaren 24ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du despopulazioaren arloko jarduketei buruz (10-20/ PES-00003). Horri buruz, Lurralde Kohesiorako kontseilariak honako hau informatu behar dio: Nafarroako Foru Komunitatearen egoera zehatzean, eta Despopulazioaren aurkako Batzordearen esparruan, zenbait esku-hartze ildo planteatzen dira erronka demografiko hori geldiarazteko: gazteentzako ekintzailtza berritzaileko proiektuak; landa-berrikuntzako guneak sortzea; landa-inguruneetan

mendekotasunari arreta emateko zerbitzuak sortzea; elkarlaneko colivinga; etorkinak gizartean eta lanean txertatzeko tokiko oinarriko programak garatzea; eskualdeka espezializazio-estrategia adimendunak egitea; zerbitzu-zentroetarako eta eskualde barruko mugikortasun-fluxuak aztertu eta hobetzea; smart villages deitutakoak; eta talentua erakartzeko lurraldeen potentzialtasunei lotutako poloak sortzea.

Aurten lekuak zein ekintzak zorrotzago zehaztuko dira.

Kostuari dagokionez, nabarmentzekoa da despopulazioa zeharkako gaia dela, eta, beraz, zuzenean eta zeharkako partidak daudela Nafarroako Gobernuako departamentu ezberdinetan. Hala eta guztiz ere, gogorarazi behar da aurrekontuen proiektua gaur egun Parlamentuan izapidetzen ari dela, eta, beraz, onetsi arte ezin izanen dela zorrotzasunez zehaztu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

## **Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren eta korporazioa osatzen duten 16 sozietateen egituren zerbitzuko langileei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren eta korporazioa osatzen duten 16 sozietateen egituren zerbitzuko langileei buruzkoa. Galdera 2020ko urtarrilaren 24ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du — 218 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen,

2020ko urtarrilaren 16an (10-20/PES-00009)— Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak (NEKP) eta hura osatzen duten sozietateek kontratatutako langileekin lotutako zenbait gairi buruz. Nafarroako Gobernuako Ekonomia Ogasuneko kontseilariak, honen bidez, entitate horrek igorritako informazioa eransten dizu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

(Oharra: aipaturiko informazioa foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman)

